



Esparru deszentralizatuan garapen iraunkorrerako politiken koherentzia aplikatzeko prestakuntza-tailerra

Apirilak 7, 10:00-14:30

OLARAIN Eraikina, Sapiientia Aretoa
Ondarreta pasealekua, 24.
Donostia-San Sebastián

Sarrera

Elkar gainjartzen diren askotariko krisien egungo testuinguruak agerian uzten du garapen-eredu hegemonikoa agortzen ari dela, eta premiazkoa dela politika publikoak diseinatzeko eta garatzeko modu "tradizionala" sakon eraldatzea.

Esparru horretan, Garapen Iraunkorrerako Politiken Koherentzia (GIPK) ezinbesteko ikuspegia eta estrategia da, garapen-eredu hegemonikoaren kontraesanak identifikatzeko eta politika publikoan egin behar diren eraldaketa horiei heltzeko, sektore arteko eta dimentsio anitzeko erronka komunei hobeto aurre egitea lortu –krisiak erronka horien aurrean jartzen baikaitu– eta honaino ekarri gaituzten dinamikak aldatze aldera. Ildo horretan, GIPK ikuspegiaren muinak aukera ematen du administrazio publiko edo erakunde pribatu baten politikan ikuspegi ekologiko, feminista eta kosmopolita zeharka sartzeko, inpaktu gurutzatuak aztertzeko metodologietatik eta askotariko interakzioetatik abiatuta, funtsezko intsumoak ematen baitituzte haien politiken diseinua eta garapena birbideratzeko.

GIPKren ikuspegia txertatzeak eta aplikatzeak dakarren aldaketa ez da txikiagoa; izan ere, alderdi nagusietan, hautsi egiten da gure administrazio- eta antolamendu-ingurunean politika publikoak eta kultura instituzionalak sortu eta diseinatzeko oinarri izan diren inertziekin eta balioekin. Adierazitakoak ez du eragozten ikuspegi berria pixkanaka eta etengabe txertatuz joatea, hainbat erakundek eta gogoeta-zentrok alderdi interesdun guztien eskura jartzen dituzten proposamen metodologiko eta instrumental batzuetatik abiatuta.

Euskal testuinguruan, GIPK otsailaren 15eko 3/2024 Legean, Lankidetzarakoan eta Elkartasunerakoan, txertatu da, eta modu sistematikoan integratu nahi ditu politiken koherentziaren printzipioak gobernuaren erabaki eta ekintza guztietan, politiken diseinutik hasi eta gauzatzen diren arte. Legearen helburu nagusietako bat da gobernu-arlo guztiek, ahal duten neurrian, GIHak lortzen lagunduko dutela bermatzea, haien barne- eta kanpo-politiken bidez.

Gainera, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legeak arau-esparru bat ezartzen du eremu publiko, pribatu eta sozialeko eragile desberdinen arteko lankidetzaren sustatzeko, bultzatzen diren lankidetzaren ekimenak eraginkorrak, iraunkorrak eta giza eskubideekiko errespetuzkoak izango direla ziurtatuta. Lege honetan GIPK ezartzeak Euskadik garapenaren ikuspegi integralarekiko duen konpromisoa sendotzen du, politika koherenteak sortzean sektore guztien parte-hartze aktiboa sustatuta.

Ikuspegi berri hori aurrerapauso garrantzitsua da; izan ere, orain arte, beste arlo batzuetatik isolatu izan da, eta horrek zatiketa eragin du ekintza publikoan.

Horregatik, gobernu-sektore guztietan benetako koherentziarantz aurrera egiteko beharra dago, Euskadiko barne-politikek garapen-bidean dauden herrialdeetan ere eragina dutela aitortuta. Koherentzia hori nazioarteko lankidetzatik harago ere aplikatu beharko litzateke, barne-politikek desberdintasun globalak ez errepikatzea eta garapen iraunkorra ez oztopatzea bermatzeko.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da berariazko prestakuntza-ekintzak antolatzea, ikuspegiari, horren jatorriari eta bilakaerari buruzko ezagutza zabaltzeko, bai eta eskuragarri dauden bideak eta tresnak eskura jartzeko ere, ikuspegi hori aplikatu, eta ikuspegi hori ezagutaraztera eta haren aplikazioa sustatzera bideratutako hezkuntzako eta eragin politikoko ekintzak garatze aldera.

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Lankidetzaren, Gazterien eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Helburuak

Helburu nagusia:

GIPK ikuspegiaren elementu nagusiei buruzko hurbilketa labur baina eraginkorra egitea, haren kontzeptuen bilakaeratik eta testuinguru autonomikorako duen garapen praktikotik abiatuta.

Helburu espezifikoak:

1. GIPK ikuspegiaren jatorriari, bilakaerari eta inplikazioei buruzko oinarriko ikaskuntza intuitiboa ematea.
2. Behar beste elementu eskuratzea, hainbat administrazio-, politika- eta antolamendu-esparrutan GIPK sustatzeko eta aplikatzeko ekintzak eta tresna bideratzaileak identifikatzeko.
3. Garapen Iraunkorrerako Politiken Koherentzian eragin politikoa izateko tresna praktikoak aztertzea.

Egitaraua

1. GIPKren funtsezko kontzeptuei buruzko sarrera-azalpena.
 - Zer da? Zertan datza? Zer ondorio ditu administrazioetan eta erakundeetan modu praktiko batean aplikatzeak?
2. GIPK aplikatzeko nazioarteko esperientziak eta metodologiak.
 - ELGAK adostutako metodologia (2019).
 - Hainbat herrialdetan, gobernu azpinazioaletan eta toki-erakundetan izandako esperientziak.
3. Tresna, metodologia eta mekanismo nagusien hurbilketa praktikoa eta interaktiboa.
 - Askotariko eraginen azterketa gurutzatua.
 - Aztarna ekologikoa, sinergiak eta *trade off*-ak.
 - Interakzioen, kalifikazioaren eta balorazioaren adibideak.
4. GIPKren erronka nagusiak Euskadin: Futuro en Común ikerketaren aurkezpena.

Erabilitako eta eskainitako tresnen iturri nagusiak:

1. Europako Batzordeko Join Research Centerreko iturriak.
2. ELGEko Politiken Koherentzia Unitatearen iturriak.
3. Espainiako Gobernuaren GIPK sistema integralaren iturriak.

Metodologia

Saioan, azalpen laburrak eta adibide kontrastatu eta dokumentatuak tartekatuko dira, eta gerora gaian sakontzeko materiala emango da.

Jarduera praktiko interaktiboak ere egingo dira saioan, GIPK ikuspegia aplikatzeko metodologiaren eta tresnen erabilgarritasun praktikoa erakusteko.

Izena emateko formularioa: <https://labur.eus/CPDS-2025>

Hizkuntza: Gaztelania



Prestakuntza-taldea

LA MUNDIAL 2015ean sortutako elkarte bat da, eta hainbat arlotan esperientzia zabala eta askotarikoa duten profesionalak osatzen dute: analisi politikoan; eragin politikorako eta gizarte-komunikaziorako estrategietan; dagokion garapen-eremuko ikerketa-, prestakuntza-, sentsibilizazio- eta komunikazio-ekintzen garapenean; Garapen Iraunkorrerako Politiken Koherentzian; eta nazioarteko lankidetzan. Prestakuntza-saioa pertsona hauek emango dute:

Raffaella Galante

Politika Zientzietan eta Nazioarteko Harremanetan lizentziaduna (Milango Università Cattolica del Sacro Cuore), Garapenerako Lankidetzan espezializatua, zehazki. 20 urteko esperientzia du garapenerako lankidetzan, GGKE-etan, baita Latinoamerikari buruzko ikerkuntzan ere.

La Mundial elkarteko kide da, eta, gaur egun, AIETIko koordinatzaile nagusia, gobernagarritasun demokratikoaren eta eragin politikoaren arduraduna, eta Espainiako eta Latinoamerikako prestakuntza-programaren koordinatzailea.

Hainbat ikerketatan lankidetzan aritu da Garapenerako Banku Interamerikarrarekin, Udalerri eta Probintzien Espainiako Federazioarekin, eta Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritzarekin. Politiken koherentziaren esparruan, nabarmentzekoa da 2030 Agendako Estatu Idazkaritzarekin lanean izandako

María Luisa Gil Payno

Ekonomia eta Enpresan doktorea Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalean (UNED), eta Ekonomian lizentziaduna Kantabriako Unibertsitatean. Nazioarteko lankidetzako eta garapenerako magisterra ere bada IUDC - Garapenerako eta Lankidetzarako Unibertsitate Institutuan (Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea), eta M.A in International Trade and European Integration-en (Joint European Studies).

La Mundial kolektiboko kidea da, garapen globaleko alternatiben eta garapen iraunkorrerako politiken koherentziaren prestakuntzan, ikerketan, dibulgazioan eta aholkularitzan espezializatua. 2017az geroztik, Garapenerako Erakundearen Koordinakundeak Futuro en Común kolektiboarekin eta REEDES

Pablo Martínez Osés

Zientzia Politikoan doktorea, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean, eta Filosofia eta Letretan lizentziaduna, Comillaseko Unibertsitate Pontifikalean; horrez gain, Latinoamerikako Ikasketa Garaikideetan masterra du (Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea).

25 urte baino gehiagoko esperientzia du politika publikoan eta gizarte zibileko erakundeek politikan duten eraginaren arloan, eta 17 urte baino gehiago daramatza nazioarteko garapenaren eta lankidetzaren politikei buruzko azterlanak eta analisiak egiten, gai hauetan espezializatuta: gizarte zibila, garapenaren teoriak, garapenerako nazioarteko agendak eta garapen iraunkorrerako politiken koherentzia.

Garapen iraunkorrerako politiken koherentziari dagokionez, nabarmentzekoa da "Plataforma 2015 y más" taldeko idazkari exekutibo gisa egindako lana (2006-2016), bai eta La Mundial

esperientzia, Politiken Koherentziarako Sistema Integral bat ezartzeko eta abiarazteko gida garatzeari dagokionez, bai eta eremu deszentralizatuan izandako esperientzia ere. Lankidetzaren deszentralizatuaren gida bat egin zuen hautetsientzat ("*Guía de cooperación descentralizada para cargos electos*"), beste zenbaitekin batera (Bartzelonako Diputazioa). Horrez gain, 2030 Agendari eta Garapen Iraunkorrerako Politiken Koherentziari buruzko formazioak eman dizkie hautetsiei, funtzionarioei eta unibertsitateko irakasleei.

Tutore ere bada Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Nazioarteko Harremanak eta Ikasketak Afrikarekin masterrean, bai eta Gizarte Zientzietako Genero Berdintasuna masterrean ere. Eta zenbait kolaborazio ere egiten ditu Carlos III Unibertsitatearekin eta Sevillako Unibertsitatearekin. •

sarearekin batera gidatzen duen ikerkuntzan dihardu, Koherentzia Indizearen (Indikoa) berrikuspenarekin, jardunarekin eta azterketarekin lotuta. Mugarik Gabeko Ekonomiaerakundearen parte ere bada, ekonomia ulertzeko eta egiteko beste modu batzuk sustatzen dituen erakundearena.

Horrez gain, irakasle elkartua da Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Ekonomia Aplikatua, Egitura eta Historia Departamentuan; hain zuzen ere, bertan ematen ditu Munduko Ekonomia eta Desberdintasuna eta Garapenerako Lankidetzaren irakasgaiak. Halaber, irakasle elkartua da Comillaseko Unibertsitate Pontifikalean; han, Gizarte Ekonomia irakasgaiak ematen du. •

elkarteko ikertzaile gisa egindakoa ere; azken horretan, hain zuzen, ikerkuntza ugari zuzendu ditu, eta haietan parte hartu du.

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Kontseiluko kidea izan zen, 1997-1998 eta 2008-2014 aldietan; kontseilu hori, hain zuzen, Kanpo Arazoetako Ministerioaren mendeko organo aholku-emailea da, garapen-politika publikoak berrikusi eta zaintzekoa. Horrez gain, Nazioarteko Merkataritza Negoziazioen Aholku Batzordeko kidea izan zen, 2008 eta 2016 artean; batzorde hori Merkataritza Ministerioaren mendeko organo aholku-emailea da, eta nazioarteko merkataritzako politika publikoak berrikusi eta zaintzeaz arduratzen da.

Hainbat ikerkuntza-sare eta -frotako parte ere bada, hala nola Garapenari buruzko Azterlanen Espainiako Sarekoa (REEDES) eta Garapenerako Politiken Koherentzia Indizearen Batzorde Mistokoa (ICPDS). •

